



ABALTZISKETA

UDALEKO KULTUR ETXEKO LOKALAK ERABILTZEKO ARAUDIA

Abaltzisketako guraso elkarteak luzatu duen eskaeraren inguruan, kultur etxeko lokalak erabiltzeko baimena onartu duenez, erabilera arautuko duen arautegia proposatzen da. Araudia era honetara banatzen da, araudi orokorra lokal guztientzako eta araudi berezia lokal bakoitzari dagokiona.

ARAUDI OROKORRA:

Udalak, kultur etxeko, teilatupeko oinean dagoen lokala, lehenengo oinean dauden bi lokalen erabilerak guraso elkateari uzten zaizkie.

Halere, Udalak, bere eginkizunetarako, bai puntualki, denboraldi baterako edo betirako lokalen beharrea aurkitzen denean, hamabost egun aurretik jakinarazita, lokal hauek eskuratuko ditu, inolako indennizazio eskubiderik zor gabe.

ERABILERAREN IRAUPENA

Lehena.- Aipatzen diren lokalen erabilera baimena, urte betekoa izango da, 2012 urtekoa. Iraupena, bi alderdien adostasunarekin beste bi urtez luzatzea izango da, beti ere 2012 urtean erabiltzaileek egindako erabilera mota aztertu ostean.

ERABILERA MOTA

Bigarrena.- Aipatzen diren lokal hauetan, funtsezko erabilera hau da:

- Teilatupeko oinean dagoen lokalean, herriko haurrek bere gurasoekin, eskola orduz kanpo egoteko aukera izango dute. Bertan egongo diren haurren adina, H.H. ETA LH. 1 barne bitartekoa, izango da.
- Lehen solairuko lokal itxian, herriko gazteak, D.B.H 1 etik gorakoek, hau barne, erabiltzeko ahalmena izango dute arautegi espezifikoan azaldu bezala.



ABALTZISKETA

- Lehen solairuko lokal irekian, L.H. 6 birateko, hau barne, erabiltzeko aukera izango dute arautegi espezifikoan azaldu bezala.

ERABILERAREN KOSTUA:

Hirugarrena.- Udalak 2011ko abenduaren 3an hartutako erabakian oinarrituaz, lokal hauen argi indarra eta berogailuaren kostua Udalaren gain izango da.

Laugarrena.- Teilatupeko oineko lokala eta lehen oineko lokal irekiaren garbiketa, udalaren gain izango dira. Baina aurrez, gauzak jaso eta txukun uztea eskatzen da, garbiketa erraztearren.

Bosgarrena.- Gazteek erabili behar duten lokalaren argia eta berogailua ikuskatzeko, orain arteko batz besteko kostua kontutan hartuko da. Hortik gora igotzen den kostua, gazteek ordainduko dute.

UDALAREN ESKUBIDEA:

Udalak, lehen solairuko lokal irekia eta lokal itxia herriko guraso elkarteari utziak ditu, bere eginkizunetarako. Zehazki asteartetan, arratsaldeko 16:30etatik 17:30 bitarte dantza ikastaroa herriko haurrei eskaintzeko.

Udalak, beste edozein ordutan, beste edozein eginkizunetarako beharko balu ere, aste bete aurrez erabiltzaileei jakinarazi eta eskubidea izango du.

LOKALEKO GILTZAK:

Guraso eta gazteek, kultur etxeko sarrerako giltzaren kopia izateko eskubidea izango dute, baina kopiaren kostua bere gain izango da.

Lehen solairuko lokal itxiaren giltza, eskaera aurkeztu eta baimena eskuratzen duen bakoitzak ale bat izateko eskubidea izango du, baina giltzaren kopiaren kostua eskatzailearen gain izango da.



ABALTZISKETA

ARAUDI ESPEZIFIKOA

LEHEN OINEKO LOKAL ITXIKO ARAUDI ESPEZIFIKOA

LEHENA.- LOKALAREN ERABILTZAILEEK:

Lokalaren erabiltzaile , Abaltzisketako udalerrian errodatuta dagoen D.B.Htik gorako gaztea izateko eskubidea izango da. Lokalaren erabiltzaile eskubidea izateko, Udalean eskaera orria bete eta ondoren baimena eskuratuko zaie.

BIGARRENA.-ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEAK:

Aipatutako lokala erabiltzeko eskubidea izango du, arau orokorra eta espezifikoa beteaz, eta lokalaren partaideek onartutako barne araudia ere bete beharko duelarik.

Erabiltzaileek, kanpo herrikoak diren beste gazteek ere gonbidatzeko eskubidea izango du, baina beti ere barne araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Kanpo herrikoek bakarrik inoiz ezingo dira lokalean egon, eta hauen ardura, kanpo herrikoek gonbidatu dituen herritarrarena izango da.

Kasu honetan, kanpo herrikoek bertaratzen direnean, gonbidatu dituen herritarren gurasoek ere jakinaren gainean egon behar dira.

HIRUGARRENA.- LOKALAREN ORDUTEGIA:

Lokal honen erabilera , asteko egun guztietara zabaltzen da, goizean lokala irekitzeko ordua 15:00 etatik gaueko 01:00 etara izanik. Kontutan hartu behar da, alboko lokaletan beste erabilpen batzuek ere badaudela eta haien eskubideak urratu ez daitezen, behar diren neurriak hartu beharko direla.

LAUGARRENA.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

- a) Lokalaren barruan, erabiltzaileen baimena duteneen zerrenda, orman erantsita bistan egon behar du.

- b) Lokalaren barneko elementuak , gaur eguneko apalak eta mahaiak zaindu behar dira eta dauden bezala utzi behar dira.



ABALTZISKETA

- c) Lokalaren ekipamendua erabiltzaileei dagokie, eta beraien jabetzakoa izango da.
- d) Lokalean musika edo telebista jartzen denean, inoren eskubideak ez dira urratu behar, eta horretarako bere neurriak hartu behar dituzte, adibidez musikaren eta edozein doinuaren bolumena.
- e) Lokalean TABAKO ETA ALKOHOLIK ezingo da sartu, erabili, eta kontsumitu ere.
- f) Lokalean askariak antolatu daitezke, erabiltzaile baten zorionak direlako, baina inoiz ezingo da alkohola eta tabako edo antzekorik sartuko.
- g) Lokalaren garbitasuna erabiltzaileen gain izango da, barne arautegian jaso behar dutelarik.
- h) Kultur etxeko sarrera eta lokaleko giltzaren kopia bana, partaide diren guztiei emango zaizkie, erabiltzaileen artean antolatu daitezzen.
- i) Erabiltzaileek barneko arautegia erredaktatu, eta udalari helarazi beharko die, hurrengo atalak arautu behar dituztelarik: Garbiketa noiz, nork eta nola egingo duten; Argia itzaltzearen ardura banaketa nola izango den; Berogailuaren ardura nola izango den; e.a.
- j) Lokalaren barruan, pintadak, kartelak eta beste edozein adierazpen kaltegarririk ez da onartuko.

BOSTGARRENA.- UDALAREN ESKUMENAK

Udalak bere aldetik, lokala ikuskatzeko aukera izango du edozein ordu eta egunetan.

SEIGARRENA.- ERABILTZEKO ESKUBIDEA UKATZEA

Udalak ikuskatu eta laugarren puntuko D,E,F,G azpipuntuak bete ez direla egiaztatzen badu, lehenengo abisoa emango dio, bai gazteari, bai taldeari eta bai gurasoari ere. Udala bigarren abisoa ematea behartuta ikusten denean, araua



ABALTZISKETA

hautsi duelako, arau hautsi duenari edo taldeari, lokalera sartzeko eskubidea ezabatuko zaio.

Eta, kanpo herrikoek bakarrik egotea ere lokalaren erabilera eskubidea amaitutzat emateko arrazoia izango da.

Lokaleko atea irekita, argia eta berogailua ez zaintzea ere nahiko arrazoi izango dira, lehenengo abisua emateko, jarraian egiten bada, erabilera eskubidea ezabatuko zaio.

ZAZPIGARRENA.- ERABILERA ZUZENA

Abaltzisketako Udalak, erabilera zuzena egitea eskatzen du, eta gazteengan konfiantza jarriaz, inolako berme edo fiantzarik ez du eskatzen. Halere, gazte taldea animatzen du, ekitaldi kultural, kirol ekitaldiak antolatzea. Udala eta udalkideek ere laguntzeko prest daudela jakinarazten da.

LEHEN OINEKO LOKAL IREKIAREN ERABILERA

ZORTZIGARRENA.- LOKALAREN ERABILTZAILEEK:

Lokalaren erabiltzailea, Abaltzisketako udalerrian errodatuta eta LH.2 tik LH 6 bitarte, biak barne, direnek eskubidea izango dute. Kasu honetan ez da Udalaren baimena behar, gurasoen ardurapean egongo direlako.

Gazte talde honek lokal itxira sartzeko aukerarik ez dute izango.

BEDERATZIGARRENA.- Lokal honetan, Udalak bere ekintzak antolatzen dituela eta, bi erabilerak uztartzeko ahalegina egin behar da. Horretarako, Udalak, ahal duen kasuetan, bi egun aurrez, erabiltzaileei, gurasoei, jakinaraziko die Udalak erabili behar duen eguna eta ordua. Udalaren erabilerarako, lokala, libre utzi beharko da, alegia, orain dagoen bezala.

HAMARGARRENA.- Argia eta berogailuaren ardura, gurasoek hartzea eskatzen da, piztu eta itzaltzeko.



ABALTZISKETA

HAMAIKAGARRENA.- Lokaleko giltzaren ardura gurasoek izango dute, orain arte bezala. Guraso bakoitzak giltza bat izango du, bera kontura kopia egin da, baina, giltzak dituen gurasoen erregistroa Udalean egon behar du.

TEILATUPEKO LOKALAREN ERABILERA

HAMAIBIGARRENA.- LOKALAREN ERABILITZAILEEK:

Lokalaren erabiltzailea, Abaltzisketako udalerrian errodatuta dagoen HH.1 etik L.H. 1 arte, biak barne, direneek erabiltzeko eskubidea izango dute. Kasu honetan ez da Udalaren baimena behar, gurasoen ardurapean egongo direlako.

HAMAHIRUGARRENA.- Lokal honen erabilera eksklusibok , orain arte bezala herriko haurrentzako izango da.

HAMALAU GARRENA.- Argia eta berogailuaren ardura, gurasoek hartzea eskatzen da, piztu eta itzaltzeko.

HAMAIBOSTGARRENA.- Lokaleko giltzaren ardura gurasoek izango dute, orain arte bezala. Guraso bakoitzak giltza bat izango du, bere kontura kopia egin da, baina, giltzak dituen gurasoen erregistroa Udalean egon behar du.

OHARRA: Lokal itxiko erabiltzaileek, lokala erabiltzen hasten direnetik kontatuta hilabete barru , **LOKALAREN BARNE ARAUDIA** Udalari eskuratu beharko die.

OHARRA: KZgunea bertan dagoen bitartean, ez dute erabilerarik egingo.



ABALTZISKETA

ABALTZISKETAKO KULTUR ETXEKO LEHEN SOLAIRUKO LOKAL ITXIAREN ERABILTZAILA IZATEKO ESKAERA ORRIA

Eskatzailearen datuak :

Eskatzailea :

N.A.N..

Helbidea :

Eskatzailearen gurasoaren datuak :

Gurasoaren izen abizenak :

N.A.N:

Helbidea:

Abaltzisketako udalak ,kultur etxeko lokalen erabilera arautzeko onartu duen arandia ezagutzen dut /dugu eta bertan xedatzen den erabilera emango diot , adierazitako arauak beteko ditudalarik.

Abaltzisketan , 2012eko urtarrilaren 16ean .

Sin: Eskatzailea

Sin:Gurasoa



ABALTZISKETA

KULTUR ETXEKO LOKALA ERABILTZEKO BAIMENA

Abaltzisketako udalak , Kultur etxeoko lokalen erabilera arautzeko arandia onartu duela, eta araudi honen berri herriko guraso eta gazteei jakitera eman zaiela , horretarako bilera , 2012eko urtarrilaren 14egin zelarik .

Abaltzisketako udalak behin behineko izaerekin onartu duen duen araudian , eta behin betiko izaerekin ,..... Osoko Bilkuran onartuko den araudian oinarrituaz , Alkateak , baimena ematen dio
.....gazteari , araudian azaldu bezala lokala erabili ahal izateko .

Eskatzailearen izena , kultur gelako lokaleko zerrendan agertuko da , ondorio guztietarako .

Baimen honekin batera , kultur etxeoko sarrerako giltza eta lokal itxiko giltza ematen zaizkio , kopia egin eta bere eskuetan izateko eskubidea duelarik

Abaltzisketan , 2012 eko urtarrilaren

Alkateak